



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 12a

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2017ko abenduaren 12ko bileran,
honako erabaki hau hartu du:

Tramitzatzeko onartzea, Jaurlaritzari eta Osoko Bilkura eta Batzordeen Atalari bidaltzea eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Jasone Agirre Garitaonandiak, EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari egindako osoko bilkuran erantzuteko galdera, Durangoko tren-geltoki zaharraren inguruan (11\10\05\01\0265-8054).

Horren berri ematen dizut, Jaurlaritza jakitun egoteko eta hortik aurrerako ondorioetarako.

Bakartxo Tejeria Otermin

IÑIGO URKULLU RENTERIA jaun agurgarria
Jaurlaritzako lehendakaria





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 12 de diciembre de 2017

Excmo. Sr.:

La Mesa del Parlamento Vasco, en su reunión del día 12 de diciembre de 2017, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Admitir a trámite, remitir al Gobierno y a la Sección de Plenos y Comisiones y publicar en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco la pregunta para su respuesta en Pleno formulada por D.ª Jasone Agirre Garitaonandia, parlamentaria del grupo EH Bildu, al consejero de Cultura y Política Lingüística, en relación con la antigua estación de tren de Durango (11\10\05\01\0265-8054).


Lo que comunico para conocimiento del Gobierno y subsiguientes efectos.

Bakartxo Tejeria Otermin

IÑIGO URKULLU RENTERIA jaun agurgarria
Jaurlaritzako lehendakaria



ehbildu



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Jasone Agirre Garitaonandia EH Bildu Taldeko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordeak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo **AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA** egiten dio **OSOKO BILKURAN** erantzuna izan dadin Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburua den Bingen Zupiria Gorostidiri, “Durangoko tren geltoki zaharraren” inguruan.

ZIOA:

Euskal Autonomi Erkidegoko Kultur Ondarearen lege berria Legebiltzarrean lantzen ari da une honetan; ziurrenik datozen hilabeteetan onartua izango da Europak 2018. Urtea Kultura Ondarearen Urtea izendatu berri duen testuinguruan.

Jakin izan dugu Durangoko tren geltokia eraisteko plan bat dagoela. Durangon duela 135 urte iritsi zen lehenengo aldiz trena, eta Bilbo aldetik egiten zuen, Juan Timoteo Ertzilla Zenarruzabeitia, garaiko Durangoko alkateak 1872ko otsailaren 29an Gobernuari horrela eskatu ostean.

Gertaera honek Durango Bilbo-Donostia lineako puntu garrantzitsuenetakoa bilakatu zuen, eta bere etorkizunean betiko eragin. Tren estazio horrek Durangok ondorengo mendeetan izango zuen garapen industrialak ekarri zuen, Durangaldeko eskualdeburu bilakatuz ezbairik gabean eta herria aberastuko zuen immigrazioa askoren helmuga. Honela, ezinezko litzateke gaur eguneko Durango ulertzea trenbideari lotutako bere iragan industrialik gabe.


Durangoren eta Euskal Herriaren historiaren parte garrantzitsu bat den tren geltoki honen eraisketaren mehatxuaren aurrean, uste dugu Kultura Ondarearen Zentroak eta Jaurlaritzak erantzukizuna baduela eta gutxienez behin-behinean eraisketa gelditzeko obligazioa duela, horretarako duen ahalmena erabiliaz.

Hori dela eta, ondorengo galdera egiten dio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuari OSOKO BILKURAN ahoz erantzuteko:

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA

Bat egiten du Kultura Sailburuak Durangoko tren geltoki zaharraren eraisketa proiektuarekin?

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 11an



Jasone Agirre Garitaonandia

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordea



A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Jasone Agirre Garitaonandia, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta las siguientes **PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA ORAL EN PLENO** al consejero de Cultura y Política Lingüística, Bingen Zupiria Gorostidi, en relación con la antigua estación de tren de Durango.

JUSTIFICACIÓN

En estos momentos en los que se está elaborando en el Parlamento la nueva ley de Patrimonio Cultural de la Comunidad Autónoma Vasca; en el contexto del recién declarado Año del Patrimonio Cultural 2018 que probablemente será aprobado por Europa en los próximos meses.

Hemos conocido la existencia de un plan de derribo de la estación de tren de Durango. El tren llegó por primera vez a Durango hace 135 años, y lo hacía por la parte de Bilbao, tras la solicitud efectuada por el alcalde a la sazón de Durango, Juan Timoteo de Ercilla y Cenarruzabeitia, el 29 de febrero de 1872.

Este hecho convirtió a Durango en uno de los puntos más importantes de la línea Bilbao-San Sebastián, influyendo para siempre en su futuro. Esta estación de tren determinó el desarrollo industrial que tendría Durango en los siglos posteriores, convirtiéndose sin duda en cabecera de comarca del Duranguesado y destino de gran parte de la inmigración que enriquecería la localidad. Así pues, sería imposible entender el actual Durango sin su pasado industrial ligado a la vía ferroviaria.

Ante la amenaza de demolición de esta estación de tren que es una parte importante





de la historia de Durango y Euskal Herria, creemos que tanto el Centro de Patrimonio Cultural como el Gobierno Vasco tienen la responsabilidad y, por lo menos, la obligación de paralizar temporalmente el derribo, ejerciendo la capacidad que tienen al efecto.

Por todo ello, formula la siguiente pregunta al consejero de Cultura y Política Lingüística, para su respuesta oral en pleno:

PREGUNTA PARA SU RESPUESTA ORAL

¿Está de acuerdo el consejero de Cultura con el proyecto de derribo de la antigua estación de tren de Durango?

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2017

Jasone Agirre Garitaonandia

Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu

